

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 1312

*372/2022 EBAZPENA, martxoaren 7koa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Amaya Fernández González andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko Larrialdi Mediko-Kirurgikoetako Zerbitzu Sanitarioko buru izendatzen den aldi baterako, lau urte luzagarri.*

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko zuzendari-gerentearen ekainaren 9ko 1289/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Larrialdi Mediko-Kirurgikoetako Zerbitzu Sanitarioko Burua lanpostua betetzeko lehia-keta-sistemaren bidez. (2021eko irailaren 29ko EHAA 195 zk. eta 2021eko urriaren 6ko BOE 239 zk.).

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Amaya Fernández González andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori izendatzea Osakidetzako Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Larrialdi Mediko-Kirurgikoetako Zerbitzu Sanitarioko buru.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Amaya Fernández González andrea Osakidetzako Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Larrialdi Mediko-Kirurgikoetako Zerbitzu Sanitarioko buru izendatzea aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta egun honetatik aurrera izango ditu ondorioak: 2022ko martxoaren 7a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, ezpada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat jazotzen dela eta, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldeztu aurretik kontrako espediente dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. apartatuan aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunei eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Zuzendaritzari.

2022ko martxoaren 21a, astelehena

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osa-kidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Barakaldo, 2022ko martxoaren 7a.

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko zuzendari-gerentea,  
MARÍA LUZ MARQUÉS GONZÁLEZ.